

Prestakuntzarako ihardunbideak – Gurutzegramak binaka

Joanba Bergara

Irakasleen prestakuntzarako saioetan anitz dira inputa edo edukiak lantzeko eskura ditugun prozedurak. «Prestakuntzarako ihardunbideak» izenpean ZUTABE argitara ematen ari den lantxoeren bidez, hain zuzen, prozedura zenbaitekin aprobak egiteko egokiera eskaini nahi zaizu. Bildumako hirugarrena da oraingoa.

Sarrera

Ez ote du merezi, aldizka bederen, geure prestakuntzarako saioetan euskara-ikasleei egin arazten dizkiegun ariketa zenbaitez baliatzeak? Bai, ezbairik gabe, nere aburuz. Horrexegatik, aurreko bietan bezala oraingoan ere, uste horren haritik, mindegi berri hau beste teknika bat jorratzera dago emana, *Gurutzegramak binaka* deritzana. Mindegiotan, dakizunez, irakaskuntz prozedura heuristikoez baliatuz, esperientzi bidez eta aurkikuntzak geure kabuz eginez bultzatu nahi dugu ikastera geure burua. Eta ez bakarka, lantaldean arituz baino. Taldea lanean iharduteko euskarri finko eta sendo gerta bait daiteke, alde batetik; eta aurkikuntz bide aparta, bestetik.

Gogoratu, azkenik, bilduma honetan funtsezko aztergaia zenbait teknika edo prozeduraren «azalpena egitea» bada ere, halabeharrez bestelako eduki-sortari ere helduko diogula, glotodidaktikako berezko ezagutza-bildumari alegia. Eta banan-banan jorratzen ari garen teknika edo prozedurak katebegiak besterik ez direla, eta prestakuntzarako saioetan elkarri lotu beharko dizkiogula, behar bezala lotu ere.

Mindegia bideratzeko iradokizunak

- 1 Gogoko al duzu gurutzegramak osatzea? Eta zeure ikasleei osaraztea? Zergatik?
- 2 Lankideekin bildu eta azaldu lagunei zure iritzia edo jarrera zein den.
- 3 Beste hainbat esparrutan bezala, glotodidaktikoan ere hiztegi *ezpezialdu* zabal bezain aberatsa dugu. Zu nola zabilta kontu horretan? Zergatik ez duzu egiten honako auto-testa: zenbat hitz tekniko datozkizu gogora hizkuntz ikasleen erroreari dagokienez? Ahalik eta hitz gehien idatzi. Bukatutakoan lankideekin bildu eta emaitzen berri eman elkarri. Horrekin bat, ahal duzun guztietan behintzat, azaldu hitzen esanahia ere.

4 Aztertu lagunekin honako galdera hau: Garrantzizkoa al da glotodidaktika-hiztegi ezpezialdua behar bezala ezagutu eta erabiltzea? Zergatik?

5 *Gurutzegrama binaka*. Lankide batekin bildu eta banatu **A** eta **B** fitxak .1 fotokopiatu ostean. Osatu gurutzegramak, bertoko argibideak aintzat hartuz.

6 *Hausnarketa*

a. Talde osoan ondorengo galdera hauei erantzun: Erraz burutu al duzue egitekoa ala zailtasunekin topo eginez? Erantzuna arrazoitu. Zeintzuk izan dituzue zailtasun-iturriak? Zergatik ote? Nola erraz liteke ariketa?

b. Hitzak asmatzeko nahiko arrastoa izan al dituzue ala ez? (Ikus .2: **C** eta **D** zutabeak.) Behar adina izan ezean, zer egin beharko genuke gurutzegramak prestatzerakoan? Lankide batekin bildu eta .2 fitxa egin. Gero alderatu emaitzak talde osoan. Zer irizten diozue hitzen banaketari? (Ikus .2: **A** eta **B** zutabeak.)

c. Zernolako arrastoak eman dizkiozue elkarri? Badago horien artean sinonimorik/antonimorik/definiziorik/osatu beharreko esaldirik...? Burutu .3 fitxa binaka. Hori egin ostean, alderatu zuen emaitzak beste bikoteek egin dutenarekin.

d. Egin .4 fitxa eta gero emaitzak alderatu.

e. Zein izan da abiapuntua: gurutzegramak (laukiak) ala topikoa? Zer irizten diozu horri? Komeni ote da alde zuretik erabakitzea zeintzuk hitz izango diren Arentzat eta zeintzuk Brentzat? Zergatik?

f. *Prozedurari erreparatu*. Zeintzuk dira zure ustez gurutzegramak sortzeko egileak egin dituen urratsak? Beste lankide batekin bildu eta .5 fitxa egin. Gero, ohi bezala, alderatu zuen emaitzak beste bikoteenekin.

7 *Zuek zeuek sortu*. Gurutzegramak bat sortzeko aukera duzu orain. Launaka burutu egitekoa; edo binaka, lagun asko izan ezean. Laukote/bikote bakoitzak arlo (topiko) bat jorratuko du; ezberdina bada, askozaz hobeto. Iradokizun gisa, hauetariko bat jorratzea gomendatuko nuke:

– Hizkuntza arrotzen eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntza (IS 10:143-144),

– Irakasleen prestakuntza hizkuntzen irakaskuntza berrian (IS 6-7:130-136),

– Bideoari bere mamia ateratzen (IS 28:71-76).

Behar izanez gero, *Glottodidaktika Hiztegi*az baliatu.

Talde bakoitzak **A** eta **B** fitxak prestatu behar ditu egokitu zaion gaiaren inguruan, aurreko gurutzegramaren haritik prestatu ere. Gogoratu **A** fitxan **A**ren hitzak azalduko direla, beraien definizioekin batera; **B** fitxan, aldiz, **B**renak, eta hitz bakoitzari dagokion definizioa. Eta, bestalde, **A**ren zein **B**renean, osatu gabeko hutsuneetan, letraren bat edo ageriko dela lagungarri gisa. Egiteko hori burututakoan, taldeek elkartrukatu egingo dituzte prestatutako fitxak eta gurutzegramak binaka osatuko.

HITZAK	AZALPENAK		ZURE DEFINIZIOAK
1. Kontrastiboa	<i>analisi kontrastiboa</i>	Bi hizkuntza edo gehiagoren sistema gramatikal, semantiko eta fonologikoak alderatzen dituen iharduera. (IS*24, 101. or.)	
2. Zuzendu	Egindako akatsak nabarmendu eta haien ordezkot erabilera egokiak zein diren erakutsi. (GH*, 107. or.)		
3. Analisi	Ikus 1		
4. Gainjeneralizazioa	<i>gainjeneralizazio</i>	Ikaslearen akatsa, salbuespenak egitea komeni denean arau bat aplikatzen duelarik. (IS 24, 102. or.)	
5. Baimena (Atz*)			
6. Anbiguitatea (Atz)	<i>anbiguitatea</i>	Gutxienez bi esanahi izatea, entzule-irakurleak zalantzan uzten direlarik hitzun-idazleen esanahiaz eta intentzioaz. (IS 24, 101. or.)	
7. Harri			
8. Oker			
9. Tori (Atz)			
10. Estali	<i>estali (errore...)</i>	Berehala ageri ez den errorea. (IS 24, 102. or.)	
11. Sena (Atz)			
12. Arina			
13. Jariotasuna	<i>jariotasuna</i>	Ikasle batek esperimentatu dituen kode-parteari erabiltzeko erraztasuna eta konfidantza. (IS 24, 103. or.)	
14. Mezua	<i>mezu</i>	Hizkuntz kodeak bideratutako esanahia. (IS 24, 103. or.)	
15. Errorea	<i>errore</i>	Onartutako kode tiko desbideratze sistematikoa (IS 24, 102. or.)	
16. Kodea	<i>kodea</i>	Hizkuntzaren sistemak (gramatika, esanahia eta hotsak). (IS 24, 103. or.)	
17. Ez-defentsiboa	<i>hizkuntz jokabide ez-defentsibo</i>	Ikasle batek xede-hizkuntza erabiltzen arriskatzeko duen ausardia. (IS 24, 103. or.)	

HITZAK	AZALPENAK	ZURE DEFINIZIOAK
18. Ebaki		
19. Tartekoa	<i>tarteko hizkuntza</i>	Ikasleak erabilitako hizkuntza xede-hizkuntzan inolako ezagupenik ez izatetik, ezagupen satisfaktorioaraino iritsi bitartean. Tarteko hizkuntza etengabe ari da aldatzen. (IS 24, 104. or.)
20. Hutsegite	<i>hutsegite</i>	Kodetiko desbideratze ez-sistematikoa, ikasketa osorik ez dela egon adierazten duena. (IS 24, 103. or.)
21. Ataza	Hizkuntz irakaskuntzan hizkuntza prozesatzearen edo ulertzearen ondorioz burutzen den iharduera. Adibidez, kasete bat entzuten den bitartean mapa bat marraztea, argibide batzuk entzun eta agindu bat betetzea, atazak direla esan daiteke. Atazek suposa dezakete, ala ez, hizkuntz ekoizpena. Irakasleak eskuarki zehaztu egin beharko luke zer har daitekeen arrakastaz burututako atazatzat. Hainbat eratako atazak erabiltzearekin hizkuntz irakaskuntza komunikatiboago bihurtzen dela esan daiteke, zeren hizkuntza bera praktikatzea baino gehiago den xede bat ematen bait dio ikasgelako iharduerari. (GH, 26. or.)	
22. Aldiberekoa	<i>aldibereko itzulpena</i>	Hiztun bat hizketan ari den bitartean hark esaten duena etengabe itzultzeko ekintza. (GH, 23. or.)
23. Behaviorista	<i>behaviorista</i>	Jokabidea aztura gisa interpretatzen duen psikologi eskola bat. (IS 24, 101. or.)
24. Kognitibo	<i>kognitibo</i>	Pentsatzeko prozesuari dagokiona. (IS 24, 103. or.)
25. Erreduktzioa	<i>erreduntantziaren erreduktzioa</i>	Ikasleak itxuraz sobran dagoen informazioa ezabatzea hizkuntz sistema batean. (IS 24, 102. or.)
26. Trena		
27. Gaitasuna	<i>gaitasuna</i>	Hizkuntza bat arrakastaz ikasteko abilezien multzoa. (GH, 52. or.)
28. Segmental	<i>segmental</i>	Hizkuntza bateko hots fonemikoei dagokiena, azentua eta intonazioa ezik. (IS 24, 103. or.)
29. Puska (Atz)		
30. So		
31. OLI (Atz)		Ordenadorez lagundutako irakaskuntza. (GH, 88. or.)

* IS 24 (Itzulpen Saila-24. alea) / GH (Glotodidaktika Hiztegia) / Atz (Atzetik hasita)

.1
B fitxa

- Idatz itzazu ezkerreko zutabeen dituzun 31 *hitz gako* horien definizioak. Zeregin hori errazteko, lagungarri gertatuko zaizu erdiko zutabeen emaniko azalpen-multzoa. Dakusazunez, hitz horietako zenbaitek gai batekin dute lotura; ez beste batzuek, ordea. Azken hauei *hitz betegarriak* esango zaie. Saia zaitetz definizioa ematerakoan hitz betegarri horiek gaiarekin lotzen. Esaterako, *gorhitz* betegarriaren definizioa eman behar izanez gero, honako hau esan genezake: «Irakasleak behin eta berriz esan dio horrela ez ahoskatzeko; hala ere, ... ematen du hark, behin eta berriz hutsegite bera egiten du eta».
- Esan beharrik ez dago ezin duzula *hitz gakoa* definizioan aipatu.
- Osotu gurutzegramara zure lagunaren laguntzaz. Honek hutsunetan idatzi behar dituzun hitzen definizioak emango dizkizu, beroriek asma ditzazun. Zuk, zeure aldetik, beste horrenbeste egin behar duzu zeure lagunarekin.
- Txandak errespetatu, honako segidari eutsiz: lagunari definizio bat eskatu → lagunari definizio bat eman.
- Zenbait laukitan gidoi txiki bat (-) ageri da. Honek hitz konposatu baten aurrean gaudela esan nahi du.

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31 32 33 34 35

1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11
12
13
14
15
16
17
18
19
20
21
22
23
24
25
26
27
28
29
30
31
32
33
34
35

HITZAK	AZALPENAK		ZURE DEFINIZIOAK
1. Ama-hizkuntza	<i>ama-hizkuntza</i>	Lehen hizkuntza. (IS* 24, 101. or.)	
2. Iraungipen	<i>iraungipen</i>	Aztura bat galtzea. (IS 24, 103. or.)	
3. Komunikazio	<i>komunikazio-estrategia</i>	Ikasleek esan nahi dutena bideratzeko erabiltzen duten prozedura; ez dauka zertan «gramatika» izan. (IS 24, 103. or.)	
4. Ireki	<i>errore ireki</i>	Berehala ageri den errorea. (IS 24, 102. or.)	
5. Xede	<i>xede-hizkuntza</i>	Ikaslea ikasten ari den hizkuntza. (IS 24, 104. or.)	
6. Zuzentasuna	<i>zuzentasuna</i>	Gramatika zuzena azpimarratzea, noizbehinka jariotasunari kontrajarritako zerbeit bezala. (IS 24, 104. or.)	
7. Abiada			
8. Transferentzia	<i>H1 transferentzia</i>	Ikasleak lehen hizkuntzaz dakiena xede-hizkuntzan espresatzen laguntzeko erabiltzea. (IS 24, 102. or.)	
9. Faltsua	<i>kontzeptu faltsu</i>	(Gramatikazko) arau bati buruz zuzena ez den ideia. (IS 24, 103. or.)	
10. Interferentzia	<i>H1-etiko interferentzia</i>	Hiztunaren H1-eko «azturen» ondorioak xede-hizkuntzan . (IS 24, 102. or.)	
11. Erreduantzia	<i>erreduantzia</i>	Kodetik mezua ateratzeko behar dena baino informazio gehiago. (IS 24, 102. or.)	
12. Globala	<i>errore global</i>	Esaldi osoaren esanahian eragina duen errorea. (IS 24, 102. or.)	
13. Gorra			
14. Aztura		Ikus <i>iraungipen</i> goian.	
15. Fosilizazioa	<i>fosilizazio</i>	Garapen prozesuaren une batean aldakaitz bilakatzen den hizkuntz jokabidea. (IS 24, 102. or.)	
16. Lokala	<i>errore lokal</i>	Oinarritu den esaldiaren esanahian eta ez bestetan eragina duen errorea. (IS 24, 102. or.)	
17. Nire			
18. Zen			
19. Kokamendu	<i>kokamendu</i>	Hitz batek izan ohi duen konpainia; hitz baten ohizko testuingurua. (IS 24, 103. or.)	
20. Zeregina			
21. ISO			

HITZAK	AZALPENAK		ZURE DEFINIZIOAK
22. Egokitasuna (Atz*)	<i>egokitasuna</i>	Hizkuntzaren apropostasuna erabilia den egoerarako. (IS 24, 102. or.)	
23. Deskodetu (Atz*)	<i>deskodetu</i>	Kode aren ezagupenaren bidez adierazpen baten esanahia ateratzea. (IS 24, 101. or.)	
24. Zaila			

* IS 24 (Itzulpen Saila - 24. alea) / Atz (Atzetik hasita)

8 Hausnarketa

- a. Zernolako gorabeherak izan dituzue **7** puntuko egitekoak burutzeko orduan? Hausnarketa bideratzeko, lagungarri gertatuko zaizu agian **6** puntua. Erreparatu bereziki gurutzegramaren prestaketan hitzak gurutzatzeko eman dituzuen urratsei. Topiko-hitz luzeak noiz aukeratu dituzue?; eta non jarri? (elkarrengandik urrun ala gertu?); eta topiko-hitz motzagoak?; eta hitz betegarriak?
- b. Zer erizten diozu teknikari? Gure prestakuntzarako balio ote du? Eta teknikaren ekonomiaz* zer diõzu?
- c. Noiz, noizero, zergatik eta zertarako erabili teknika? Inputa aurkezteko/ inputa lantzeko/ inputa birpasatzeko/ gai jakin baten inguruko ezagutza zenbaterainokoa den neurtu edo aztertzeke? Edota beste edozertarako?

9 Aldaerak. Mindegian jorraturiko teknikari ikutu zenbait emanaz gero, litekeena da aldaera berriren bat aurkitzea. Horretan saiatu.

10 Teknika euskara-ikasleekin. Amaitu aurretik, zein egiteko gertatu zaizu errazago, **5** puntukoa ala **7**koa? Zergatik? Ba al du horrek eraginik gure ikasleei begira, eskolan mindegian jorraturiko teknikaz behar bezala baliatzeko? Zeintzuk dira, zure ustez, gure ikasleek teknika honi behar adina etekin ateratzeko kontuan hartu beharreko puntuak? Ala ez zara erabiltzearen aldeko?

A	B	C	D
Hitzak	Gaiarekin lotura duen hitzak ✓ ikurrarekin bereizi	Hitzen luzera	Zenbat letra ezagutzen ditu lagunak?
Arenak 1 KONTRASTIBOA 2 ZUZENDU 3 ANALISI 4 GAINJENERALIZAZIOA 5 BAIMENA (Atz*) 6 ANBIGUITATEA (Atz) 7 HARRI 8 OKER 9 TORI (Atz) 10 ESTALI 11 SENA (Atz) 12 ARINA 13 JARIOTASUNA 14 MEZUA 15 ERROREA 16 KODEA 17 EZ-DEFENTSIBOA 18 EBAKI 19 TARTEKOA 20 HUTSEGITE 21 ATAZA 22 ALDIBEREKOA 23 BEHAVIORISTA 24 KOGNITIBO 25 ERREDUKZIOA 26 TRENA 27 GAITASUNA 28 SEGMENTAL 29 PUSKA (Atz) 30 SO 31 OLI (Atz)		12 letra	_ _ _ T _ _ _ T _ B _ _ :3
Hitz-kopurua: <input type="checkbox"/>	Gaiarekin lotura duen hitz-kopurua: <input type="checkbox"/>	Batazbestekoa: <input type="checkbox"/>	Batazbestekoa: <input type="checkbox"/>
Brenak 1 AMA-HIZKUNTZA 2 IRAUNGIPEN 3 KOMUNIKAZIO 4 IREKI 5 XEDE 6 ZUZENTASUNA 7 ABIADA 8 TRANSFERENTZIA 9 FALTSUA 10 INTERFERENTZIA 11 ERREDUNDANTZIA 12 GLOBALA 13 GORRA 14 AZTURA 15 FOSILIZAZIOA 16 LOKALA 17 NIRE 18 ZEN 19 KOKAMENDU 20 ZEREGINA 21 ISO 22 EGOKITASUNA (Atz*) 23 DESKODETU (Atz) 24 ZAILA		12 letra	A _ _ _ Z _ _ _ T _ _ :3
Hitz-kopurua: <input type="checkbox"/>	Gaiarekin lotura duen hitz-kopurua: <input type="checkbox"/>	Batazbestekoa: <input type="checkbox"/>	Batazbestekoa: <input type="checkbox"/>

.3
Definizio motak

(Ipini ✓ ikurra – bai esan nahi du – dagokion lekuan.)

Hitzak	Definizioen nolakoa				
	Sinon.	Anton.	Definizioak	Osatu beharrekoak	Eta beste (zehaztu zer den)
Arenak					
1 KONTRASTIBOA					
2 ZUZENDU					
3 ANALISI					
4 GAINJENERALIZAZIOA					
5 BAIMENA (Atz*)					
6 ANBIGUITATEA (Atz)					
7 HARRI					
8 OKER					
9 TORI (Atz)					
10 ESTALI					
11 SENA (Atz)					
12 ARINA					
13 JARIOTASUNA					
14 MEZUA					
15 ERROREA					
16 KODEA					
17 EZ-DEFENTSIBOA					
18 EBAKI					
19 TARTEKOA					
20 HUTSEGITE					
21 ATAZA					
22 ALDIBEREKOA					
23 BEHAVIORISTA					
24 KOGNITIBO					
25 ERREDUKZIOA					
26 TRENA					
27 GAITASUNA					
28 SEGMENTAL					
29 PUSKA (Atz)					
30 SO					
31 OLI (Atz)					
Guztira: <input type="checkbox"/>	Guztira: <input type="checkbox"/>	Guztira: <input type="checkbox"/>	Guztira: <input type="checkbox"/>	Guztira: <input type="checkbox"/>	Guztira: <input type="checkbox"/>
Brenak					
1 AMA-HIZKUNTZA					
2 IRAUNGIPEN					
3 KOMUNIKAZIO					
4 IREKI					
5 XEDE					
6 ZUZENTASUNA					
7 ABIADA					
8 TRANSFERENTZIA					
9 FALTSUA					
10 INTERFERENTZIA					
11 ERREDUNDANTZIA					
12 GLOBALA					
13 GORRA					
14 AZTURA					
15 FOSILIZAZIOA					
16 LOKALA					
17 NIRE					
18 ZEN					
19 KOKAMENDU					
20 ZEREGINA					
21 ISO					
22 EGOKITASUNA (Atz*)					
23 DESKODETU (Atz)					
24 ZAILA					
Guztira: <input type="checkbox"/>	Guztira: <input type="checkbox"/>	Guztira: <input type="checkbox"/>	Guztira: <input type="checkbox"/>	Guztira: <input type="checkbox"/>	Guztira: <input type="checkbox"/>

.4
Definizioaren zehaztasuna

Hona hemen *irakurmen* hitzaren zenbait definizio. Zein da zure ustez zehatzena? Eta zein jarriko zenuke beste puntan? Saillatu definizioak zehaztasunaren arabera.

- Idatzizkoaren ulermena.
- Irakurtzen dena ulertzeko trebetasuna.
- Oinarrizko lau hizkuntz trebetasunetako bat.
- Entzumenarekin batera trebetasun hartzaileen multzoa osatzen du.

.5
Gurutzegrama sortzeko urratsak

Ondoren dituzu nahasirik egileak 5 puntuko gurutzegrama sortzeko egin dituen urratsak. Zuk ordenan jarri behar dituzu.

- a. Aukeratutako hitzen «definizioak» prestatu.
- b. Hitz betegarriez osatu (goitibeherakoak gorritz, urdinez zeharkakoak).
- c. Topikoarekin zerikusirik duen hiztegia ikertu eta zenbait hitz hautatu.
- d. Hitz betegarriak zerrendatzen joan, behar besteko kontrol ezarriz.
- e. Aukeratutako hitzen definizioak idatzi.
- f. Topikoa aukeratu.
- g. Gurutzegrama birpasatu.
- h. Topikoaren alorreko hitzak zerrendatu.
- i. Gurutzegrama sortzen hasi aukeratutako hitzak gurutzatuz (goitibeherakoak gorritz, zeharkakoak urdinez), behar beste kontrol ezarriz.
- j. Hitz betegarrien definizioak prestatu.
- k. A eta B fitxak prestatu.
- l. Gurutzegrama osatutakoan, garbira pasa, baina hitzik jarri gabe.

1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	

Oharra

* Prestaketa eta antolaketan eginiko ahaleginen eta ariketari ateratako etekinaren arteko erlazioari deritzo **ekonomia**. Esaterako, prestaketan ahalegin handia egin ostean ariketari etekin gutxi atera bazaio, argi dago ariketa ez dela batere ekonomikoa izan. Baina prestaketan zein antolaketan ahalegin asko egin izan arren etekin handia atera zaion ariketa, aldiz, ekonomikotzat joko dugu edo ekonomiko samartzat.

Irakasleen prestakuntza hizkuntzen irakaskuntza berrian (Itzulpen Saila, 6-7). Donostia: HABE.

Hill, B. 1990. *Bideoari bere mamia ateratzen* (Itzulpen Saila, 28). Donostia: HABE.

Littlewood, W. 1986. *Hizkuntza arrotzen eta bigarren hizkuntzaren ikaskuntza* (Itzulpen Saila, 10). Donostia: HABE.

Norrish, J. 1989. *Hizkuntz ikasleen erroreak* (Itzulpen Saila, 24). Donostia: HABE.

UZEI. 1987. *Gloto didaktika Hiztegia*. Donostia: HABE.

Aipuak

Dalgalian, G.; S. Lieutaud eta F. Weiss. 1985.